

Luz verde al protocolo de los derechos lingüísticos

Deseando que efectivamente se convierta en una herramienta práctica para evitar las vulneraciones de derechos lingüísticos, el trabajado protocolo que ha reunido a más de un centenar de agentes y ha superado las 400 aportaciones ya es una rea-

lidad. Paul Bilbao, secretario general de Kontseilua, lo situó ayer en Donostia como una aportación a la convivencia, la pluralidad y una sociedad más justa, que se traduce en 185 medidas, once principios y nueve artículos. **>10-11**

► 18 Diciembre, 2016

Aurrekaririk gabeko bide orria txikiak handi izan daitezke

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak komunitate gutxiak babestu nahi ditu, eta handiekin parekatu. Bizikidetzaren aldeko testua da, eta lortu duen parte hartze eta adostasun mailak ez du aurrekaririk.



Oihane LARRETXEIA | DONOSTIA

Ambizio handiko nahia zen; grina, lana, konpromisoa eta pazientzia handia eskatzen zituen. Ia-ia ametsa zen. Urte eta erdiko lan gogorraren ondoren, zuhaitzak eman ditu fruituak: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa edo "Donostiako Protokoloa" atzo aurkeztu eta sinatu zen ekitaldi solemne batean, eta zergatik ez, baita hunkigarria ere. Ez zen gutxiagorako. Kontseiluak eta Donostia 2016 egitasmoak sustatuta, milaka hitzunen eskubideak bermatuko dituen bide orria martxan da dagoeneko.

Hizkuntza eskubideen alorrean halako adostasun zabalak lortu duen dokumenturik ez da existitzen, ez du aurrekaririk, eta jaiotzatik bertatik da ezberdina denen parte hartzea ezinbestekoa eta beharrezkoa izan delako: 400 ekarpenetik gora eta 100 eragile baino gehiagok osatutako lehen talde atxikitzailea. Horiek denak Kursaal jauregian izan ziren protokoloa sinatzeko. Askok aurki egingo dute,

eta azken egunotan interesa agertu dute beste hizkuntza eragile batzuek ere. 500.000 hitz dituen erzya hizkuntza gutxiaren ordezkari zoritzarrez ezin izan zen Euskal Herrian egon, Errusiaren de-

kuak tarteko. Zapalkuntza eta jazarpena agerian gelditu ziren.

Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiak ezin izan zituen hainbat sentimendu -kolektibo- ezkutatu, ezta nahi ere, «ospatzeko eguna» zelako, aitortu

zuen. «Gai izan bagara errealtate horren desberdinei erantzuteko, bagara gai geure hizkuntzetan bizitzeko baldintza egokiak sortzeko. Prest daude gizarte justuago bat eraikitze-ko», adierazi zuen.

Tresna praktikoa izango da protokoloa, egunero jazotzen diren «bidegabekeriak ez gertatzeko» bokazioa duena, baita bakea eta bizikidetzaren sustatu nahi dituen ere, oinarritzko eskubideak errespetatzen direnean bi

La Carta Europea de las Lenguas Minoritarias, compromisos en papel mojado

El Protocolo ayer presentado y firmado tiene mucha relevancia desde el momento en que son las propias comunidades lingüísticas minorizadas las que tomarán el mando y recogerán sobre el papel el grado de cumplimiento y vulneración de sus derechos, porque Europa ya tiene otros acuerdos suscritos, pero las autoridades y gobiernos hacen muchas veces dejación de sus funciones.

La Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias de 1992 es un ejemplo de que estas garantías y derechos quedan a merced de la voluntad política. La presidenta del Comité de Expertos de este

documento, Vesna Crnic-Grotic, admitía el viernes en Donostia que no todos los estados aprovechan la oportunidad que brinda el documento para velar por los derechos de las lenguas minorizadas. De hecho, pese a firmarla, muchos no la han ratificado después, algo indispensable para ejecutar los compromisos. El Estado francés es uno de ellos.

Una vez ratificado, los países han de elegir un mínimo de 30 artículos para hacerlos cumplir después. Por ejemplo, pueden elegir entre ofrecer una lengua como asignatura o impartir la educación en esa lengua minorizada. «El nivel de implantación de la carta es


muy bajo», admitió en el transcurso del Foro sobre Diversidad Lingüística, que citó la presión que a veces los gobiernos centrales hacen sobre los locales.

También es alarmante que la Carta excluya de su definición los dialectos y las lenguas de las personas migrantes de cada país firmante. Aquí también juega un papel determinante la voluntad de los estados, que deberían «considerar muy en serio los deseos de los hablantes», opinó Crnic-Grotic.

El comité de expertos realiza encuentros con las comunidades de hablantes y hace un seguimiento de los países, a quienes piden hechos. 01



► 18 Diciembre, 2016



Hizkuntza gutxituen komunitateetako ordezkariak sinatu zuten atzo protokoloa, Donostiako Kursaal jauregian. Ehunetik gora bildu ziren, harro.
 Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

*«Identitatea, guztiz
 baliotsua izanik
 ere, ez da aski;
 hizkuntzak
 komunikazioaren
 kultur tresna behar
 du izan»*

J.M. TORREALDAI
 Euskaltzaina

*«Bizikidetzaren,
 aniztasunaren,
 parametro
 berrietan
 oinarritutako
 Europaren aldeko
 dokumentu bat
 sortzeko gai
 izan gara»*

PAUL BILBAO
 Kontseilua. Idazkari Nagusia

*«Zergatik ulertzen
 diote elkarri
 munduaren alde
 banatan dauden
 zaldiek? Gizajoak
 oraindik hizkuntza
 unibertsalean ari
 direlako»*

MARIA DO PILAR GARCIA
 Irakaslea, idazlea eta eragilea

kontzeptu horiek sustatzen direlako. Antolatzaile taldeko kide den Linguapax elkarteak zentzu horretan egin zuen hitzartzea. «Komunitate linguistikoaren duintasunak ekarriko du bakea. Etikoki derrigorrezkoa da hizkuntzak zaindu eta errespetatzea, gizateriaren ondare diren unetik». «Elkarbizitza», «bakea» eta «gizarte justuago bat», besteak beste, aipatu ziren hitz mardulak. Norabide horretan egiten du onartutako dokumentuak.

Ez zaizkio arrotzak balore horiek Donostia 2016ko hautagai-tzari, urte osoan zehar sustatu baititu ekimenen bidez. Aitzitik, Xabier Paya kultura programazioaren zuzendariak onartu zuenez, honakoa izango da kultura hiriburutzak utziko duen ondare garrantzitsuenetako bat. Berandu baino lehen sinatutakoa martxan jartzea eskatu zuen hizkuntzak hil ez daitezen. Edwin Benson gogora ekarri zuen orduan, mandan hizkuntzaren azken hitzuna. Iragan abenduaren 10ean zendu zen, Giza Eskubideen Egunean, 85 urte zituela. «Sinatu bai, baina bete dezagun.

Horrela bakarrik utziko baitogun mandan hizkuntza hil egin dela bezalako berriak irakurtzeari.

Babelgo Dorrea ez da zigorra
 Duela hogeitau urte Bartzelonan onartu zen Hizkuntza Eskubideen Deklarazioan du oinarri Donostiako Protokoloak. Aureli Argemi eta Maria do Pilar Garcia orduan zuzenean parte hartu zuten. Azken hori Babelgo Dorrea zigorra dela uste dutenez mintzatu zen Donostian. «Batzuei erakargarri zaie hizkuntza unibertsala; nik, ordea, sinisten dut aniztasunak egiten gaituela gailen animalien aurrean».

Dena homogeneizatzeko dabiltzan haizeak kritikatu, ezberdina izatearen balioa gorai-patu zuen. Bat egin zuen mezuarekin Joan Mari Torrealdaik, gizon maitatu eta errespetatua. Hizkuntza komunitate aktiboari dei egin zion, bereak baitira lorpen handienak, betiere «kudeaketa ona» badago. Protokoloa sortzeko bidean eraiki diren sinergiak aprobetxatzeko deia ere egin zuen, «nor bere kasa aritu beharrean».

DONOSTIAKO PROTOKOLOA: 185 NEURRI, 11 PRINTZIOPIO, 9 ARTIKULU

Donostiako Protokoloak 185 neurri jaso ditu eta 11 printzipio identifikatu: hizkuntza eskubideak, hizkuntzagatiko diskriminazioa, hizkuntzaren estatusa: hizkuntza ofizialak, legeak, neurri zuzentzaileak, baliabideak, neurri positiboak, unibertsaltasun printzipioa, zehar-lerrotasuna, hizkuntzaren arnaguneak eta memoria historikoa. Sinatzaileek, era berean, bat egin dute Kontseiluak eta Donostia 2016k proposatutako bederatzi artikuluekin:

1. artikulua: SUBJEKTUAK:
 Hizkuntza eskubideak indibidualak eta kolektiboak dira. Edozein gizarte, historian zehar lur eremu zehatz batean finkatuta, eremu hori errekonoiztuta ala ez, bere burua herrizat duena, eta hizkuntza komun bat garatu duena.

2. artikulua: HELBURUAK
 Aniztasuna bermatzea eta garapena ziurtatzea, desabantailan daudenen garapenerako tresna eragingarria sortzea eta hizkuntza komunitateak subjektu izatea.

3. artikulua: BALIOAK
 Elkarbizitza eta bakea, aniztasuna, berdintasuna eta eskubideak.

4. artikulua: GIZARTE ERAGILEAK GILTZARRI
 Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilaren aldarrikapena eta bizi gogoa suspertu ditu, eta horri esker lortu da sentsibilitatean eragitea. Dokumentu honek Europan lanean ari diren eragileen bilgune izan nahi du.

5. artikulua: ERREFERENTZIAK
 Hainbat dira aintzat hartu diren adierazpen historikoak: 1948ko

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, 1950eko Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen eta Oinarriko Askatasunaren Hitzarmena, 1996an Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta Unesco 2003an onartu zuen "Hizkuntzen bitzasuna eta desagertzeko arriskua" izeneko txostena.

6. artikulua: EGITURA
 Egunerokoaren parte diren eremuetan jarriko du arreta protokoloak: printzipio orokorrak, erakundeak, hezkuntza, sozioekonomia, onomastika, hedabideak eta teknologia berriak eta kultura. Horiek guztiak betetzen direla bermatzeko, gainera, neurriak zehaztuta daude eta, aldi berean, adierazleak identifikatu dira neurrien betetze maila neurtzeko.

7. artikulua: JARRAIBIDEAK
 Komunitateetako gizarte eragileek zehaztuko dituzte bai neurrien hurrenkera zein denboralizazioa. Kaierari esker betetze mailaren jarraipena egin ahal izango dute. Aukera izango dute tokiko, eskualdeko edo Estatu botere publikoekin lanketa egiteko.

8. artikulua: JARRAIPEN BATZORDEA
 Lehen jarraipen batzordea Talde Antolatzaileko kideek osatuko dute, eta hurrengoak Jarraipen Batzordeak zehaztuko ditu. Horiek dira Ciemen, Ecmi, Linguapax International, Elen, Unpo eta PEN International eragile eta elkarteak.

9. artikulua: HARTZAILEAK
 Protokoloa Nazio Batuetako, Europako Kontseiluko eta Segurtasun eta Lankidetzarako Europako Erakundeko hainbat goi ordezkari bidalko zaie.